

25n.
urtea

ZAR


1977
2002

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

263n. zenbakia
bagilla 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ZUGATZ MAILLATUA (MALATO) LUIANDO'N

- OR AMAITZEN ZAN BIZKAITARREN DOANGO GUDARITZA.
- EZPATEA ZUGATZEAN SARTZEN EBEN (MAILLATU).
- GAUR, ORDEZ, KURUTZEA DAGO (1730'KOA).
- ORI ZAN GURE LEGE ZAR BAT.
- ORTIK AURRERA JARRAITZEKO ORDAINA BEAR ZAN.

ITXAS - ONTZIGINTZA (I)

Gure Bizkaian'n garrantzi aundikoa izan da ontzigintza, antxiñatik asi eta oraintsura arte. Gai oneri buruz zer bait esan gura dogu idazlan batzutan gure irakurleakaz batera geure Bizkaia geiago ta obeto ezagun ta maitatu daigun.

Ontzigintzaren edestia noiz asi zan jakin gura ba'dogu, ezin aitzu geinke, dakigunez, lenengo ontzigillea Noe izan zala. Jakingarriak dira Bibliak dakazen zeaztasunak. Zela-koa zan Noe'ren ontzia? Ona emen jakingarri batzuk:

- 150 metroko luzeerea edo eslora.
- 25 metroko zabalera edo manga.
- 15 metroko goierea edo puntala.

Gaurko zama-ontziak antzeko neurriak daukez eta antzekoak dira, haita, luzeera-zabalera ta goierearen artean diran aldeak.

Antxiña ziran munduko errien artean, ontzigillerik ospetsuenak fenizioak izan ziran. Ara zer diñon Orazio erromataren olerkari ospetsuak Odisea deritxon liburuan: "Badatoz fenizioak, itxas-ontziak egiten ospetsuenak". Eta Ejipto hera be Kristo'ren aurreko amabost gizalditan Lur-Arte deritxon itxasoan nagusi izan zan.

Azkenengo 200 urteak baiño lenago, itxas-ontziari indar egiteko bide bi baiño ez ziran ezagutzen: oialak eta arrau-nak.

Aldi guzti orretan ontziak zelan egin ikasteko ez egoan beste biderik gurasoak curen semeai emoten eutsen irakatsia baiño. 1772n. urtean sortu zan Erriberan lenengo ontzigintza. Jorge Juan eritxon ontzigillea il eta urrengo urtean. Or ;si zan aurrerapena eta 1807n.urtean Robert Fulton'ek egin eban lurrun-indarrez chillan lenengo ontzia: Clermont eukan izena, York- Barri'tik Albany'ra egiten eban osterea eta 100 norki eroan eikezan. Baiña oraindiño urteetan oiala izango da indargille nagusia itxasoan.

XIX gizaldira arte ontziak zurezkoak ziran eta gizaldi onetan asi ziran burdiña be sartzen ontziak egiteko, baiña 1915n. urtera arte ez zan sartu ontzietara Diesel motorra. Aurrerapen bi oneikaz eta gudarako bear izan ziran aurrerapenakaz, ontzi askoz aundiagoak eta sendoagoak egitea lortu zan. Oraintsu, gaiñera, kisi edo nuklear -indarrak aurrerapen aundiagoak egiteko bideak zabaldu dauz, langille gitxiago bear da eta ondoren aundiagoak ateraten dira.

Ona emen zelako itxas-ontziak aitatuko doguzan lan onetan: 1) Meatzak, garauak eta arrorioa eroatekoa. 2) Garauak edo aleak (gaña, artoa eta olakoak) eroatekoa. 3) Gas urtua eta otza eroatekoak. 4) Euren barruan itxas-ontzi txikiagoak daroerzanak, gero errezago gaia banatzeko. 5) Kamioak-eta barman eroatekoak. 6) Ferry'ak barruan berebillak, kamioak eta notiañak eroatekoak. 7) "Trampa"

deritxenak: oneik edozein zama eta edozein tokitara eroan leikee.

Noiztik ekin dabe bizkaitarrak ontzigintzan?

Ez da gauza erreza jakitea. Ziur dakigu XIII gizaldian Bizkaia'n ontzigintzak indar aundia eukala. III Fernando erregeak Sebilla eskuratzeko, Bonifaz gure almiranteari agindu eutson ontzidi bat egiteko.

XIV gizaldiaren asieran, Bilbao'n San Nikolas eleizatik urrean, ontziak itxasoratzeke tokia egoan. Eta gizaldi orren barruan ontziak egiten ziran Portugalete'n, Lekeitio'n, Ondarroa'n, Bermeo'n, Plentzia'n eta Laida'n. Eta XV gizaldian Zorroza'n, Sestao'n, Ripa'n eta Basurtu'n. Bizkaitarrak bizkor ebiltzan balearen billa naiz gudaketan euren itxas-ontziakaz. I495n. urtean Bilbao'ko Udal-Batzak agindu au emon eban ontziak itxasoratzerako: "Marabedi larregi txautzen dala eta zarata ta izkanbilla larregi izaten dala itxas-ontziak itsasoraten diranean".

Bizkaia'n orduan egiten ziran ontziak benetan sendoak ziran, beste iñongoak baiño sendoagoak, erabilten zan zura bertoko aritzena zalako.

Bizkaia'n izan ei zan lenengoz ontzien auditasuna adierazteke curen barruan zenbat tonel sartu leikezan esaten zan lekua eta ortik etorri ei da "tonelada"k izena. Izen au gaur mundu guztian erabilten da.

Asieran otzigintzan Bermeo izan zan nagusi eta XV gizaldian Bilbao'k irabazi eutson. XVI gizaldian, ostera, Portugalgete'k kendu eutson nagusitza ori Bilbao'ri.

Kolon mundu barriaren billa joateko ontziak Bizkaia'n egin ziran baiña gero ontzi orreik gudarako artu ebazan erregeak. Bigarrenez joan zanean. Bizkaia'n egindako ontziakaz joan zan.

Isabel erregiñeak Ameriketa'ra joan etorriak egiteko Karabela bat eta beste bost ontzi eskatu ebazan Bizkaia'ra eta bete zazpi ontzi Juana bere alabea Flandes'era joan zanean.

Ontziak, eta batez be bale-ontziak Bizkaia'n eukan garrantzia ikusteko begiratu Lekeitio, Mundaka, Bermeo, Ondarroa, Plentzia ta Portugalete'ko ikurdiak: Guztiak dauke balea.

Burdin-lana bizi-bizi egoan Bizkaia'n XVI gizaldian: Or egin ziran Magallanes'en ontzietako izkilluak eta oletan egiten ziran ontziak egiteko bear ziran untzeak, aingurak eta burdin-gai guztiak. 300 ola egozan Bizkaia'n.

XVIII gizaldian asi zan nagusitasun au galtzen, batez be makallaua ta balearen arraintzarako aukera kendu euskue-nean. ■

OLAZAR'tar Martin'ek

OARRA: Idaz-lan oneitan agiri diran jakingarriak Bizkaia'ko Aurrezki -Kutxak argitaratutako "Colección de temas vizcainos" en 1975"ko jorraillean Jose Antonio Azedo'k agertu eban lanetik artuta dagoz. Ez da itzulpena.

ZER-25 URTE!

1977.n urteko garagarri edo uztailean argitaratu zan lenengoz ZER gure aldizkaria. Zidarrezko eztegu au (2002'an) ospatzeko, egin dagigun pentsalditxu bat.

Ezin itzi esan barik ez genduala uste gure aldizkariak ainbeste urte iraungo ebanik. Zergaitik? Aldizkari gitxi izan diralako euskalerrian olako eztegu urtea ospatu dabenak, eta guk ez gendun geure burua ain pseudo aurkitzen. Baiña emen agertu doguzan notin askori eta emen agertuko ez diran beste askori eskerrak, iraun egin dogu eta pseudo aurkitzen gara gaur.

Zer nai gendun?

Orduan gure lenengo elburua, elburu nagusia, Bizkai'ko euskerea indartzea zan. Gure euskerea alboratuta ikusten gendun, gaur be bai oraindiño:Irakaskintzan, liburugintzan, aldizkarietan ETB'n eta abar.

Baiña ba-genduzan beste elburu batzuk be: Batua-ren indar aundiari galgea ezarri gura geuntsan, Bizkai'ko euskerea alboratu eta galdu ez dagian. Batua-ren indarrez, H'a be zabaldu zan eta gaur be bizkaierearen alde dagozan asko, esterako Karmel edo Lauaxeta edo Mendabalde, bide orretatik doaz. Guk asieratik esan gendun H'a kaltegarri dala euskerarentzat eta gaur be orrelan diñogu. Beste orreik H'aren alde ba'dagoz, ez da, nire ustez, euskereak bear dauala sinisten dabelak, beste zio batzukaitik baiño. Guk zer ergin geinke? Arazoa eroapen aundiaz artu eta geureari eutsi. Etorriko da egunen bat, betor ainbat len, euskereari H'a kenduko jokona. Eta kentze ori gauza erreza izango da, naikoa da orretarako erakunde arduratuen agindu bat. Ez dago ezer be ikasi bearrik: Kendu eta kito. Zelako poza emongo leuskien euskalerrri osoari, iparraldekoai be

bai, curen euskalkian darabilen H'a sartzeko baimena emon ezkerro.

Eta beste elburu bat, lortu doguna, Bizkai'ko irakurleai Bizkai'ko euskeraz irakurgai bat eskintzea. 300.000 gara, gitxienez, bizkaieraz berba egiten dogun euskaldunak eta bear gendun zerbait gure euskalki idatzia irakurteko.

Egia da arlo onetan ez garala larregi itxiak, gipuzkerazko idazkiak be artzen doguz eta artuko doguz, gure anai giputzen euskerea be ezagutu, maitatu eta, al dogun neurrian, idatzi dagigun.

Bideak

Ez da gauza erreza aldizkari bat argitaratzea eta 25 urtetan lan orretan irautea. Zorionez, lortu dogu!

Izan doguz laguntzailleak eta batzuk aitatu doguz: Bizkai'ko Foru-Aldundia, Bilbao'ko Udala, apur bat Eusko-Jaurlaritza eta BBK. Bejoakiez gure eskerrik beroenak 25n. urte onetan!

Baiña geien lagundu dauskun erakundea Euskerazaleak Euskerearen Aldeko Alkartea izan da, bai diruz eta bai lanez. Asieran ZER Alkartea onetatik bereizia izan zan, baiña laster artu eban Alkartek bere gauza lez. Eskerrak Alkartea onetako bazkide guztiai!

Nortzuk

Asieran aurrerengo ibilli ziran eta gaur be laguntzaille onak doguzanak oneik dira: Josu Arenaza, Iñaki Egurolla, Jesus Oleaga (+), Jon Erramon Bilbao (+), Iñaki Zubiri eta Andoni Landajuela (+). Gaur Karmele Fernandez'ek laguntzen dausku asko. Eskerrik asko!

25n. urtea

1977 - 2002

ZER

Zuzendaritza ta idazleak

Aldizkariak zuzendari ba bear eban eta neuri eskiñi eusten lan au. Nik ez neuken onetan ikasi aundirik, baiña artu neban lana eta gogotsu artu be. Ordutik ona lana sendo egin bear zian dot eta ondo egiten alegindu.

Batez be aldi batzutan neuk idatzi bear izan dot asko, gaur be bai oraindiño, baiña asko be asko izan dira idazteko laguntza emon dauskuen idazle onak. Guztien izenak ezin aitatu baiña bai emen guztiai esker ona agertu. Edozelan be 100n. zenbakian eta 200n'ean agertu dira guztien izenak eta lanak. Ori Jaime Kerexeta'k egiten eban, baiña joan jaku Jaime eta 300n.'ean be egingo dogu.

Gero illero irarkolarako gertatu bear izaten da eta sasoiz croan, urrengo illearen erdia baiño lenago bentzat argitaratzeko. Gero Irarkolako len-idatziak zuzendu egin bear izaten dira. 262 bider egin bear izan dira lan oneik eta pozik gagoz beti eta sasoiz egin diralako. Eskerrak guztioi!

Banakuntza ta diru-zaintza

Asieratik argi itzi neban lan bi oneik ez nebazala neure ganean artzen, baiña, zorionez ondo be ondo egin dauz Euskerazaleak Alkarteak lan bi oneik. Eskerrik asko!

Zabalkundea

Ona emen aldizkariaren aurrerapenerako beste arlo bat. Barrezkoa arpidedun barriak lortzeko, baiña arlo onetan gitxi saiatu gara. Orretan ez gara trebeak. Eta egin bear dan gauzea da!

Arpidedunak

Oraintxe esan dogunagaz lotuta doa arlo au. Beti izan dira gure arpidedunak 1.300 inguru eta zarrak joan diralako, pizka bat gitxitu da kopuru au. Emen ekin bear dogu barriak lortzeko eta onetan asko egin daikee gure irakurleak.

Kobrakuntza

Aldizkariari eusteko bearrezkoa da arpidedunen saria kobratzea edo eskuratzea.

Ardura au be Euskerazaleak Alkarteak daroa bere gain eta Bilbao'n etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Ez da erreza izaten olako langille bat aurkitzea, baiña naiko ondo egin da.

Bilbao'tik kanporako errietan, erri aundi batzutan, ba'daukagu kobratzaillea, baiña beste leku askotan ez. Irakurleak arduratu beitez zenbaki guztietan agertzen dan bbk'ko gure zenbakira urtero ordaiña eroateko. Barrero be eskerrik asko!

Aurrerantzean zer?

Guk jarraitzeko gogoia ta itsaropena sendo daukaguz baiña eskari bat egiten dautsegu Euskerazaleak Alkarteari eta irakurleai: Esan eiguzue zein dan zuen eritxia aldiakari oneri buruz eta zer aldatuko zeunkeen. Zuen eritxiak pozik entzungo doguz eta bete be bai, agertu doguzan elburuen bidean doazen artean.

Zorionak eta esker ona guztioi. ■

OLAZAR'tar Martin ZUZENDARIAK

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA**

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

BAKERAKO BOTOA'RI ZEAZTASUNA

Atzo zornotzan, 2001'an Apirilla'ren 22'an. Larrako Karmeldarren Parrokian, goizeko zortzi ta erdietako mezan, Bilbo, Gazteiz eta Donostia'ko gotzaiñak idatzita, Pastoral bat "-BAKERAKO BOTO" ak emon euskuen eleiztarrak irakurri daigun. Eta esan bear dot, neure poztasuna lortu baiño, ustekabe aundiagoa sortu eustala. Ez bakarrik eleizako sermoietan entzuten dogunagaitik. bai Espaina'ren gotzaingoaren mezua-gaitik ere: "ETA eta bere ILKETAK" bakarrik aipatzen diralako, asken baten Euskalerrriaren etsairik aundienagaz bat egiñaz.

Neure Kristautasunaren ustean, zalantzako mezua dala aitzen dot, eta orregaitik zati bitan bananduko dot idatz-lan unen zeaztasuna.

Euskalerrria

Euskalerrria zaarra da, eta orregaitik esaten dot oso jakintsua dala, ainbeste milla urtetako biziaren zuzentasunak, berez zeozer emoten daualako. Eta nik esango neuke gauza asko emoten dauzala: adibidez izkuntza, Euskera bera. Gaztelaren eta Fran-tzeaz aurrean asko geiago da irakaspidean, nor bera konturatu barik zuzentasunean kokatzen gaitulako.

Eta ez da arrokerizko gauza bat esaten nabillena, ikusi baiño ez dagoalako edestitik zear. nolako gizonak euki dauzan Iñazio gandik asita, Aita Bitoria eta abar asko, eleizari al dan guztia eurok emon dautsela gaur arte. Espainol sindikatoak ere bai, emen euki dabelako aukera eta emen egin ziralako, eta aurrera-koi izatez gaur egunean egiten dauanagaitik, ez da ikusten Mundu onetan besterik (eta ez nago odolagaitik berbetan). Berezitasuna daukala, begiak eta belarriak bakarrik bear dira ikusteko eta entzuteko.

Sekula ez da erasoan joan, bai alderantsiz erasoan etorri direnak auren lekura bota. Benetan esan leike, gizonak, eta batez ere menperatzaileak gauza garbirik ikusita, nai gizon, beren lana edo erriak izan-dabe, lokastu egiten dauela, daukien balioa kenduarte, curen asken bako sabel-zorriaren gosea sekula ez dalako betetan. Eta emen itaun bat agertzen da, benetan gogorra dana: Noren jainkoagaitik egiten dabe ekintza ori "GAIAREN JAINKOA GAITIK ala ZERUKO JAINKOA GAITIK? Dana dala, Euskalerrria or dago tinko!!, beren ardurak bete gurean, BEREN NORTASUNARENAK DIRALAKO.

Eleiza

Euskalerrriko gizon emakumeak oso JAINKO zale eta Kristauak gara Kristo etorri zanetik. Baiña antziñetik ere gaurko arazoa euki gendun, len inperioak edo aginduaren arazoa (globalizazioa edo oro-arren aginduaren naia), eta gaur egun ere bardin globalizazioarekin. Len baktzak beren etxeko ardurak eroaten ebazan eta Euskalerrriko Eleizak ere bai; baiña gauza bi kantuan euki bear doguz:

1.^a Konstantinok Eleizari emon eutson eskubidea European Mendebaleko Katolikotasunagaz, eta Rekaredo'k Eleizarekin bat egin ebanean Toledo'ko kontzeilluak sortuz. Ortik aurrera, Eleizak ezin izan dauz kaizar-zaleen gogoak geratu eta apurka apurka menperatzaileak irabazten joanaz XVIII'garren gizaldira eltzen gara, eta oil, menperatzaileak berezitasunari emoten dautso, ala emon gura dautso azkeneko aitzokada edo sastakaria, berezitasun guztia menpean eukiteko. Nungo aldera joan zan Eleiza, beren ardurapean eukinda Europaren Mendebaleko menperatasuna XV Gizalditan? Laster ikusiko dogu.

Euskaldunak 1820-1823'tik asita, bost borroka gogorrek euki doguz eta sei ikusi Munduko lenengo gerlarekin, danak! menperatzaileak berezitasunaren aurka; eta or dago orain ere arazoa zuzendu barik. Baliteke JAINKOA oso okerra izatea, gizon-naikeriaren aurka, munduko gizonaren etorkizunean berezitasun-berriztuarekin. Ainbeste zori-tzar'zen ostein erabagi on bat artu zan: aurrerantzean ez zata gerla geiagorik izango, eta demokraziaren bidetik garbitu bear zala betikoa dan arazo au. Orregaitik ainbeste zarata gaur egunean; benetako denborak diralako, eta baktzak beren ardurak lotsagizunagaz garbitu bear dauzalako.

Arduradunaren denborak diralako, arazoetan BUSTI-BEARRA dago, eta nai-ta nai-ez baktzaren menperatzaile alderdia edo berezitasunaren alderdia non dauan kokatuta jakiteko.

ZUGATZAK BOTA EZKERO, URA TA TXORIAK
BADOAZ. ZUGATZAK SARTU EZKERO, URA TA
TXORIAK EKARRI EGITEN DIRA"

R. CODORNIU

Orregaitik Eleizari. itaun bakarra egingo dautset: XVIII'garren gizalditik aurrerantza. eta gaur egun arrazoi geiagorekin, ez dauala esaten: "EMEN ERRI BAT DAGOALA edo EUSKALERRIA ERRI BAT DALA". Ori Batikano'ko II Batzar Nagusitik errez ateraten eta XXIII Juan'ek argi itxi eban "PACEN IN TERRIS" agirian, eta ori izan zan Añoberos Gotzaiñak agertu eban arazoa.

Espaina'ko gotzaiñak au diñoenean: "ETA eta LAGUNTZAILLEAK EZ DIRALA KRISTAUAK eta ALBORATU EGIN BEAR DIRALA. Zergaitik ez dau argi esaten "LAGUNTZAILLEAK" nortzuk diran? Or! jausten da Espaina'tar politikaren illuntasunera, eta esan leike ABERTZALE GUZTIAK SARTZEN DAUZALA.

"ARGITASUN GEIAGO ESKATZEN DOGU ETA EUSKALERRIA ABERTZALEAKAZ BATERA DAGOKIEN LEKU TXALOGARRIAN IPINTEA ESKATZEN DAUTSEGU GURE ELEIZAKO ARDURADUNAI. OR! IKUSTEN DOGULAKO ZALANTZA".

Asko baiño geiago lagunduko eben, gauden lokatzatik urten daigun iñungo zalantzarik gabe. Len aipatu dodaz Zeruko JAINKOA eta gaia'ren sasi-jainkeria.

EUSKALERRIA ZERUKO JAINKOAZ BETI DAGO, ZAARRA DALAKO BESTE GAUZARIK EGITEKO. ETA ZIUR EGON, ASKENEKO ARNASARAARTE IZANGO DALA.

JAINAKOA'RENGANA JOAN ARTE. ■

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2001'an APIRILLE'ko 22'an

GAZTELEREA GEURE GURARIZ?

Guztioi arrigarri gertatu jaku I Juan Karlos España'ko erregearen esaldia: "Gaztelereak beti jokatu dau gogo onez eta iñori ez jako ezarri nai ez dauala".

Jakiña da, erregeen itzaldiak iñok idatziak izaten dirala, baiña bai idatzi ebanak eta bai irakurri dauan erregeak berak zurtasunaren urritasuna agertu dabe. Nok sinistu-azo guri ezarri dauskuen gaztelerea geuk nai dogulako eta geuk eskatuta ezarri jakula?

Esaldi ori oso mingorra izan da, idazki onetan asalduko dogun lez.

Aldi baten liburuetan eta illerrian euskeraz idatzi-ta egozan izenak be kendu egin ebezan eta gure bideetako izenak, erriak euskeraz esaten izan dauzan izenak, beti erderaz ipiñi dauskuez, oraintsura arte, ainbat urtetan ez dauskue baimenik emon ez irratian berba egiteko eta ez aldizkariak eta liburuak euskeraz argitaratzeko, gure eskoletan irakasle erdeldunak ipiñi dauskuez, España'ko eskalafoiari jarraituz, gure Erdi-Maillako eta Goi-Maillako Ikestetxeetan ez dauskue itzi euskeraz berba egiten. Itz

barririk eskatu, arek euren izkuntzakaz pozik egozan eta bakean iztea zan egokiena. Baiña jenezidioak egin ziran eta bertakoa dana zapuztu. Ori orrelan da eta orrelan dala onartu artean beste toki batzutan be jenezidioak egingo dabez.

Iñok buruz eta oiñarri barik diñodala ori esa ez dagian, ona emen neure oarkera edo esperientzia: Euskalerrian eta erderarik ez ekien gurasoakandik jaioa ta giro orretan azia, euskera utsa nekiala, erriko eskolara joan nintzanean, ez neban berba bat be euskeraz entzun. Dana erdera utsean. Eta apur bat erderea ikasi eta goragoko mailletara ikasten joan nintzanean, barriro, dana erderaz, berba bat be ez euskeraz. Gero erri -aurrean berba egin bearra etorri zanean, baimena eskatu gendun gure izkuntza ikasteko ta obetzeko, eta au izan zan erantzuna: "Zuek ikasi euskerea, baiña isillean, baimen barik, baimenik ezin geinke emon".

Eta orreik orrelan, non aurpegira botaten dauskuen: "Erderaz berba egitera ez zaitue iñok beartu, zeuen borondatez sartu da gaztelerea zuen artera". Eta nok esa dau ori? Erregeak berak! ■

ZUGAZTIAK DIRA GIZAKIAI EGIN-
DAKO EMOITZIK ONENA

ZIZERON

OLAZAR'tar MARTIN'ek

baten esateko, alegin guztia egin dabe euskerea ilteko eta erderea gure etxeetara, errietara eta gizartera sartzeko eta orain nasai-nasai diñosku erregeak gaztelerea beti zabaldu dala borondatez. Eta nik ain maite dodan, Lazaro Carreter'ek be, au esan dau irribarrez: "erregeak beti dauko errazoa".

Oker-esan oneri azalpen bat be emon dautsoe: Erregeak une orretan gogoan eukana ez zala Euskalerrri'ko ta Kataluña'ko arazoa, bere buruan Ego-Ameriketako gaztelerea egoala.

Ez da ori be erantzuna. Lenengo, Euskaldunak aitzuta ez diralako euki bear eurak iraintzen diranean eta gero Ameriketatik iñok ez ebalako izkuntza



ALDI ZKARI ONEK
BI ZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

GAMARRA'TAR MANUEL (1723-1791)

BILBAO'KO SANTIAGO'N

Igaz bete ziran 50 urte Bizkaia eleizbarruti biurtu zala. Antxe izan giñan Bilbao'n antxiñakoa dan eta urte orretan Gotzain-Eleiza biurtu zan Santiago Apostoluaren eleizan. Pozik entzun gendun Aita Santuaren "Bulla" deritxon agiria euskeraz eta erderaz: "Quo commodius".

Berrogeta amargarren urte au edo "urrezko eztegua" ospatzeko, Santiago Apostoluaren eleiza au barriztatua izan da. Ba'eukan bear-izana! Eta oso ederto geratu el da.

Barrizatze ori dala-ta gure Eleizbarrutiak liburu oso eder bat argitaratu dau "La catedral de Santiago de Bilbao" deritxona. Irakurten diardut eta gure irakurleai aurkezpena egitea otu jat. Ori egingo dot ba, lenengo eta gero aurkeztuko dot or agiri dan notin gogoangarri bat: Gamarra'tar Manuel.

Emeretzi atal ditu 252 orrialde ederretan liburu onek eta liburua bera aundia eta ondo josia da.

Aurkezpen bi daukaz biak euskeraz eta erderaz: lenengo gure Gotzain jaunarena eta bigarrena Aldun Nagusiarena. Itz-aurrea da urrengoa, Jose A. Barrio Loza'k eta Jose R. Valverde Peña, oraintsu il jakun abade adiskideak izenpetua. Asko galdu dau Bizkai'ko eleizeak Joserra'ren eriotzeaz! Itxaropen aundi bat zan gure edesti ta edertilanak bideratzeko!

Gotzain-eleizeak zer esan gura dauan oso ederto agertzen dau urrengo atalean Perea'tar Jokin adiskideak. Geienetan ardura aundirik ez dogu artzen arazo au ulertzeko baiña egi sakona da gure fede-arloan Aita Santuak bere eleizea eta Gotzaiñak berea eukiteak. Ortik dator gugana Kristo gure Salbatzailearen irakatsia ta grazia, ortik baita gure errietako eleizak dauken garrantzia.

Urrengo lau atalak: Uria Eleizearentzat, eleiza bat uriko salerosleentzat, Santiago eleizearen jatorria, gotiku-barri tankerako aurreko ormea, eleizearen ereikuntza, oso ondo aztertutak dira eta ederti-arloan zaletuak diranai aolku au emongo neuskie nik: Artu egizue liburua eta banan-banan ikusi aztertzen dauzan ederlanak. Egunak bearko dozuz balita ez jatzu damutuko. Mal onein idazleak ezagunak dira: Juan Manuel Gonzalez Cembellín, Joserra'ren ondoren Eleizbarrutiko Museoa bigarren Zuzendaria dana, Aldundian ederti-arduradun dan Zabala ta Uriarte'tar Aingeru, len aitatu dogun Jose Angel Barrio Loza eta Perez de la Peña eta Oleaga'tar Gorka.

Urrengo atala be Valverde ta Peña'tar Jose Ramon'ek idatzia da. Gaia eleiza onetako altzariak, zati bitan banatuta: zuerezkoak eta zidarrezkoak. Ikusi, irakurle, oneik be liburua eskuetan dozula, eleizatxuak, santuak, tresnak eta abar. Asko ikasiko dozu. Zidarrezkoak beste atal baten dakaz Jose Angel Barrio Loza'k.

Atal irakurgarri bat da illobietako idazki edo "lauda"i buruz Jesus Muñiz Petralanda'k dakarrena. Or ikusten da noraiño eltzen dan Euskalerrian ildakoak eleizen barruan illobiratzeko oiturea, agintariak galazo arren be ezin alboratu izan dan oiturea.

Baiña irakurteko deadar aundia egiten dauan atal bat eleiza onetan izan zan eres-oiturea da: Gaur musikea irakasteko etxe ta toki bereziak dagoz, baiña olakorik ez egoanean Eleizea zan eres-irakasle eta Santiagoren eleizan Gotzai-Eleiza bateko eran abesten eta jotzen zan eresa eta orretarako eleiz-abeslariak, gaurko kanoniguen antzekoak eta erri-abeslariak (umeak naiz aundiak) egozan, baita organulariak eta askotariko eresgailluak jotzen ebezanak be. Erroma'n ospetsu ziran "castrati" areik Bilbao'n be ba-egozan. Olako arloan zan trebea idazlan onen idazpuruan ipiñi dogun Gamarra'tar Manuel.

Oraintsuago Eleiza onetan izan diran oikuneak gogortzen dauskuez Jose Carlos Enriquez eta Ana Isabel Leis Alava'k.

Iru atal luze ta irakurgarri geratzen jakuz agertzeko "Martija ta Lejarreta'tar Eusebio adiskideak agiritegiko agiriak aztertzeke egiten dauana eta Rafael Purroy Belsunze'k eleiza onen barrizkuntza osoari begira dakarrena eta batez be guztiok ezagutzen dogun Olabarria'tar Anastasio'k Bilbao'n izan diran gotzaiñai buruz idazten dauan lan aztertzalea ta egokia.

Eta geiago barik, goazen idaz-lan onen idazpuruak adierazo dauana agertzera.

Esan dogu zelako garrantzia eukan Bilbao osoan Santiago'ren eleizan irakasten zan eresak. Baiña aldi baten or gertatzen ziran ereslari ta abeslarien ospea Europa guztira baldu zan. Olako zabaltzaille bat dogu Gamarra.

Laiko ereslarien arduraduna edo "Maestro de Capilla" zan. Lekeitio'n 1723n. urtean jaioa. Bilbao'n il zan 1792n.urtean.

Lenengo ume abeslaria izan zan eta gero inguruko lurraldeetan ibilli zan arik eta barriro Bilbao'ra maisu lezetorri arte.

Arrigarriak dira ereslari onek Euskalerraren lagun ziran Errege-Bazkunakoakaz, Peñaforida'ko kondeagaz beragaz, izan eban artu-emonak eta ospetsu izan zan 1764n. urtean Bergara'ko jaietan.

"Azkoitia'ko Zalduntxuak" eritxen talde orren jokabide orreri jarraituz lurgintzarako asmakizunak be egin eban.

Orra or, Santiago'ren eleizako abes eta eres-batzean Bizkai'tar ospetsu bat. ■

OLAZAR'tar MARTIN'ek

EUSKEREAREN INGURUNE

LINGUISTIKOA BAKIO: BESTE ERASO BI

Badira urte bi, gitxienez, gure errian euskerea normalduteko plangintzea indarrean dagoana. Plangintza orrek Bakioko eguneroko bizitzearen arlo askotan zabaldu dau eragina, artean, merkataritza eta politikarien arloetan be. Alandabe, orreetariko batzuk, euskerea dala-eta, sano iragatx eta sargatx izaten jarraituten dabe. Aor, osterantzean, adibide esanguratsu biok:

A.- Kai-Arldeko taberna guztiek (5) euren iragarki panelak aldatu barri dabez. Coca-Coleak babestuta, iragarki panel guztiak antera antzekoak diran ezkerotan, lortu egin dabe, alantxe, zelango edo alango eragin optiko ego-
kia, bezeroak erakarteko, jakina.

Eragin optikoa, bai, baina guztiz espainola!

Ezin irakurri leiteke an euskerazko berbarik, orreetariko taberna batzuen izenak kenduta, ez dagoalako an euskerazkori k irakurteko.

- Non lotu da, bada, merkataria eta tabernariakaz asitako euskerea normalduteko ekinbidea? Non zorioneko elebitasuna?

- Egon da -panelok erdera uts-utsean egoteko- or euskera normalkuntzearen jarraipen aaleginik?

- Zer egingo dau Udaleko Euskera Zerbitzuak egoera ori aalik armen arteztuteko?

Zer egingo dau zerbitzu orrek merkataria eta tabernarien artean olangorik barrira jazo ez daiten?

B.- Leengo zapatuan, ilaren 10ean, Bilbon egiteko izan zan Ibarretxe jaunak deitutako kale agerraldia dala-eta, Bakioko EAJ alderdi politikoak kaleratutako iragar-ki-deia erdera uts-utsean ekarren. Guztira 15en bat kartel eskegi izan ziran errian. Dan-danak espainol utsean!

An be euskeraz irakurri eitekean ia gauza bakarria IBARRETXE abizena baino ez zan izan. Ez egoan kartel guztiotan bape euskeraz irakurtekorik.

Alderdi politiko orreri, leenago beste alderdi batzuei bialdu jaken eran, ekintza lotsagarri orregaitik idatzizko protestearen agiri ofiziala bialdu bearko leuskio erriko Euskera Batzordeak.

Udaleko Euskera Zerbitzuak be gogoratu eragin bearko leuskio alderdi orreri, Bakion euskerea normalduteko plangintzea indarrean dagoana eta eurak ez dagozana plangintza orretatik ate loa', ez da urrik emon be, ez barruko ezta kanpoko artuemonetan be. ■

Iniaki MARTIARU
Bakio

ERES-ALDIA

Agur beroa musikearen txokotik!

Barikuz izan zan kontzertua, eta antolatutako kontzerturako autobusik Bakiotik egon ez zanez, bakarrik Arnaldo Larrazabal eta biok jan ginan ara.

Musikaldia "SPLIT 77" taldeak asi eban. Bai, Bakioko jaietan jo ebenak. Egia esan, euren ez etorren bat kar-teleko izenburuaren erroiloagaz, curen musikea "Smashing Pumpkins" diralakoen ildokoa izan zan-eta. Batzue-
tan, guk orreri larregizko imitazioa eritxi arren be. Osterantzean, doinua eta abestiak kalitatezkoak zirana ez dago ukatzerik, Bilboko "label"agaz, jakina.

Ostean, musikaldiaren izarrak agertokiratu ziran, "Hardcore Superstar" taldeko suedierak. Kontzertua, oroko-
rrean, txukuna izan zan. Euren "look"a Los Angeles'eko larogeiko amarkadako "hard rocker"en antzekoa izan zan (Guns'n Roses, Monthley crüe, Faster Pussycat...), guztiz tatueta, begiak marraztuta, naruzko frakak jantzita, etab. Abeslariak AXL Rosen (Guns'n Roses) keinu eta abots berbera eukazan, kitarra joleak itzelezko punk anterea eukan, eta bateriajoleak farlopaz goraino bateta egoanaren antza emon euskun.

Errepertorioari jagononez, "It's only rock'n roll" eta "Bad sheakers and a piña colada" diskoen abesti zein "Monthley crüe"ren bertsinok pare batez osotu eben. Baina euren hard rocka aldarrikatu arren, naiko "punk rocker" begitandu jakuzan.

Barbada, abeslariaren "parrafada" batzuk lar egon ziran, baina curen abesti txorta ederrakaitik parkatu egin geunskien. Ori bai, bakiotar gitxi ikusi genduzan lokalean. Alan bada, anima zaitze apur bat urrengorako. Ez dozue gogokoago zapatuetako bueltea edota domeketarako ostea izango, ezta? Ala bai? ■

Etor Duoandikoetxea

ALKARGETU (EKSKOMUNIKATU)?

Oraintsu zurrumuru txar bat entzun da eta gure irakurleentzat zerbait esatea dagokiola uste dot. Auxe da zurrumurua: España'ko Gotzain-Batzordearen buru dan Rouco Kardinalak agiriren bat ei dauko gertu ETA'koak alkargetzeko edo ekskomunikatzeko. "Mundo" izparringiak zabaldu dau zurrumuru ori, baiña gero entzun da, baita, ez daukala ezelako oiñarririk. Dana dala, asi dira Kanon edo Eleiz-Legeen zaleak euren eritxiak agertzen eta eztabaidatzen, asi dira, baita politikariak euren eritxiak botaten, gotzain batzuk banaka esan dabe eurak ezer be ez dakiela...

Zer da ekskomunikapena edo alkargetzea?

Eleizkide dan bat alkarte onetatik kanpora ateratea. Bizitzan naiz eriotzan naiz eriotz ostean, ez leuke ezelako eskubiderik izango: Ez sakramentuak artzeko, ez eriotz-ostean illetea bere alde egiteko. ez illobi sagaratan illobiratua izateko, ez Eleizearen otoiz legezkoetan bere izena esateko edo bere alde otoitz egiteko. Alkargetua edo ekskomunikatua izan dana, bizitzan inpernura bialdua da eta eriotzan galdutzat artzen da.

Egoera negargarria benetan beretzat, etxeoentzat eta Eleiza osoarentzat!

Nor alkargetu (ekskomunikatu) leike?

Artzaiñak bere ardien edo eleiztarren gaiñean dauan eskubidea da eta Aita Santuak egin leike mundua osoan edo Gotzaiñak bere eleizbarrutian. Eleizan legedi bat dago orretarako.

Zergaitik alkargetu (ekskomunikatu)?

Oben guziz astun eta nabarmen bategaitik izan bear dau eta errez sartzen da olako arlora giza-iltzaille diran izuzaleen jokabidea.

Nor alkargetu lei?

Kristo'ren artaldea dan eleizatik kanpora bialtzeko, lenengo fededuna ta eleizkidea izan bear da. Bateatu bakoak eta eleizatik kampo dagoenak ezin alkargetu edo ekskomunikatu leiz. Geienez eleizakoak ez dirala agertu zalantza dagoanean. Eta gauza ziurra izan bear da oben oso astun eta nabarmen ori egin dauala. Izu-zaleak giza-iltzaille diranean alkargetu leiz baiña baita oiñazeak ezarten dabezanak edo torturatzaileak edo jeno-

zidak edo erri bat desagertzeko bideak artzen dabezenak. Oben bi oneik gaur nabarmenak dira eta gizarte-maillan oso astunak, eleizgiroak, batez be Batikano'ko II Batzar Nagusiaren ondoren. orrelan aintzat artuak.

Eleizeak iñoz egin dau olakorik?

Zori txarrez bai, batez be Erdi-Aroan eta oraintsuago. Aita Santuak ortodoksoak alkargabetu ebazan eta alderantziz gotzain ortodoksoak Aita Santua.

Leon Aita Santuak alkargabetu eban Lutero eta onek be bai Aita Santua, eta sarritan be sarritan egin dira olako ekintzak. Baiña aspaldion Eleizan geiagotan len ezarritako alkargekuntzak edo ekskomunikapenak kendu egin dira (esaterako Ortodoksoena ta Luterorena).

Eleizea ama errukitsua da

Orrexegaitik da sinistu-eziñeko geuzea olako ama batek ori bere seme edo alaba bateri egitea: Betiko inpernura bialdu! Mundu onetan inperurako bidean ipiñi! Ez. Ori ez.

Eta zer egin ama on batek oker dabiltzanai, esaterako gaur izukeri-giroan giza-iltzaille diranai?

- Eurakaz alkar-izketea egiten alegindu.

- Eurai bideak eta errazoiak eskiñi jokabide ori izteko.

- Seme-alaba orrei biurtzea, gure artera etortea, eskatu.

- Biurtuta datozenak pozik artu.

- Ezelan be ez onartu beste politiku batzuren jokabidea, olakoak iltea edo espetxeratzea baiño nai ez dabenen jokabidea. Gudea irabaztea barik, benetako bakea egitea billatu.

- Eleizeak erriak erakutsi ta maitatu bear dauz eta euren eskubideen alde jokatu. Orretarako agiriak esana bete: II Batikano, Pacen in terris, popolorum progressio...

- Gure euskalerrria "zazpiak bat" da.

Guztion artean guztiontzat bakea egin eta guztiok, bakoitxa bere lekuan, aurrerapenean ezarri. Orra or Eleiza lez daukagun zeregiña. ■

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek

"PORKE" EUSKERAZ?

Ogei-bat urte dira, eta itxas-ertzeko erri baten izan zan, euskaldun garbi eta jator bateri "porke" entzun neutsala. Esaterako: "Ez naz etorri lenago, porke aita ez da ordurako etorri".

Antzeko zerbait esaten eben euskaldun klasikuak, baiña ez da ain minkorra: "Ez naz etorri lenago. zerren aita ez da ordurako etorri".

Eta gure euskaldun zarren artean be entzuten da olako zerbait: "Ez naz etorri lenago ,-e alta ez da etorri ordurako".

Azkenengo esaldi biok txarto dagozenik ez neuke esango. Bai. ain jatorrak ez dirala, joskeran latiñaren ikutua dauke.

Euskerajatorrean onelan esan bear litzake: "Ez naz etorri lenago, aita ordurako etorri *ez dalako*".

Zergaitik eutsi bear dauksagun esaera zar oneri?

Euskaldunak euskera egiten dau. baiña alderantziz be bai: Euskereak euskalduna egiten dau.

Euskaldunak garalako daukagu ezur-era bat, edo odolmota bat edo aurpegi -era bat, batez be pentsaera bat eta ori zaindu egin bear dogu geure emoitza munduan emotea eta zabaltzea nai ba'dogu.

Gure euskerea asko aldatu da bere edestian, naizta berez iraunkorra izan, naizta ez aldatu latiña gastelera izateko aldatu dan beste. Eta aldakuntza au, alboan euki dogun "adstrakto"ak eragin dau. latiñak lenengo eta latinkumeak gero. Eta aldakuntza ori arlo askotan egin da: itzetan, joskeran, adizkietan, oguzkeran eta abar, baiña alegindu gaitzean alboko indarren ikutu ori baretzen, gure euskerea larregi aldatu ez daiten.

Eta zergaitik sartu da edo doa sartzen "porke" ori?

Gure burua erdeldun biurtzen doalako eta orregaitik egiten jaku gatx esaldi luze baten azkenera itxarotzea. an *lako* lokarria ipinteko. Baiña gure izakerea zaintzeko alegin ori egin-bearrekoa dala uste dot.

Ez esan ba sekula be: "Ez naz etorri *porke* aita berandu etorri da".

Obeto esan ez. beste au: "Ez naz etorri *,e* aita berandu etorri da".

Esan: Ez naz ordurako etorri aita berandu eldu *dalako*.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKALERRIA ARANA'TAR SABINO BAINO LENAGO -MATXINADAK-

Euskaldunak, Austria'tarekin lortu gendun gure askatasuna zaintzea. edo gure FORU -LEGE'ari euren aldetik lotsa erakustea. Eta olan izan zan 1700'arte V'garren Felipe Borboi'rekin gure mutillak indarkerien bitartez, taldeka gudarako (guerra de sucesión) gudari croan arte eta mugak Ebro-ibai'tik Auñamendi eta itsasora eroan arte.

A ta guzti ere, euki genduzan larrialdiko egoerak IV'garren Felipe'ren denboran 1631 -1634'an "GATZA'ren matxinada'gaz" (rebelión de la sal). Espaina "Paises Bajos"ekin borrokan ibili zan eta dirua bear ebelako, or asten ziran gure FORU-LEGEA'ri lapurketak edo lapurketarako alegiñak, euki genduzan "JAUN" aldetik. Eta argi dago gure MATXINOAK gogor egiten ebela gure askatasunak iraun dagian. Baiña Espainako guda-loste-zaindariaren diru-gosea edo premiña aundia zalako euren borroketarako eta gurekin zer ikusirik ez ebenak euki, beste erri-bat izan giñelako, bai-ta gure "JAUN-TASUNA" Espainako erregearen eskuetan jausi zalako 1 Juan'etik minera; ortik eta gure arteko jendea eurekin ondo bizi zana gure erria salduz, asi ziran gure NORTASUNAREN naasketak.

MATXINADAK ziran, EUSKALERRI'ko JAUNA'ren aurka egiten ebezan ERRI-BORROKA'k, eta gogorak izaten ziran, arrantzan eta nekazaritzan urte txarrak ziralako, goseak baituta egon zan Euskal-erriarentzat. Orregaitik bigarren Matxinada 1718'ko urtean izan zan, zerga-etxe edo mugak Ebro ibaitik Auñamendi ta itsasora aldatu ziralako gure baime-nik gabe.

1755'ko urtean, aragiaren garestia gaitik eta gure erri-tar langilleak ez ebelako irabazten ogi-zati baterako, VI Fernando'ren denboran, bai III Karlos'en denboran ere, Frantzia'gaz zazpi urteko borrokan sartuta egon zalako, bai Ingalaterra'rekin ere, gose aundia zan, eta gaiñeratu ez gero indarkerizko Espainol politika'ri, 1766'an Matxinada Ego aldeko Euskalerrri guztian zabaldu zan.

1804'ko Matxinada'ri "ZAMAKOLADA" eritxon, eta Espainia'tarak Frantzia'gaz borrokan ibili zirelako, gure mutillak derrigorrez eroaten ebezan gudara, Euskalerrri'ko FORU LEGEAK iñungo kontuan euki barik.

Ikusten dogun lez. Euskalerrriak Borbo'ari ere bizi-bizian aurka egiten eutson, baiña ez zan naikoa. Espainol'en gogotako "ERDIKERI-NAIA'ren INDARRA", gudaren aitzakiak eta eten-bako goseak. geiegi izan ziran gure Erriarentzat. A ta guzti ere, ondiño ba-eukan indarra gure "FORUEN LEGEAKAITIK" borrokatzeko.

Baiña argi ikusten dana da: 1629-1804 urteak arte, gure erria menperatzeko alegin aundi ta zitalak izan zirela.

Euskalerrria I Napoleon'en denboran

1789'an, Frantzia'ko iraultza asi-ta, Versailles'en, Agoiril edo Abuztu'ko 4'an 10'garren lege-geiaren autarpena egin zan, gure Iparraldeko FORUAK ezerezetu egin ebazana. Gero Esparteroko 1839'an antzerakoa egin eban, gure Ego aldeko FORUAK ere ezerezean itzita. Aiek, Frantzia'ko Lurralde'en Jauna izatetik, Frantzia'ko errege izatera aldatu ziren. erri-bere-

zi guztiak iruntsi ta meperatuz, Frantzez izkuntzara danok bear-tuta. Eta Espainak bardin egin eban, erria menperatuta, izkuntza ezeztatzeko alegiñean ere, zigorkada gogorraren bitartez. Baiña joan gaitezan ikustera zer gertatu zan Frantzi'ko iraultzaren denboran 1 Napoleon'ekin gure karlisten gurlarano.

Esan bearrezkoa da aurretik, Euskaldunak ez genduzala jakin Napoleon'ek guretzako euki ebazan egin-naiak, beren as3nakizuna, Euskalerrri guztia batera eukitea, Mendebaleko Kaisar-gobernu batena izan zalako. Baiña beste aldetik Frantzi'tarrak 1790-1791'ean gogor asi ziren zigortzen Euskalerrriko abertzale guztiak, gizon/emakume, abade eta gotzain'ari Guillotinagaz lepoak moztzen, eleizak erretzen eta kanpaindorreak kanpaiakaz botaten, erritarrak eizatzen, eta euki eben dirua, tresneri eta abere guztiak lapurtzen, 1794'an izu-ikara negargarri au goi-mallakua egin arte. Orregaitik Euskalerrria beren apaiz eta erritar'ekin Ingalaterra'ren aldetik kokatu zan.

A ta guzti ere, Frantzia eta Espainia'ko guda 1793'an asi zanean eta 1795'an Frantzia'ren eskuetan Gipuzkoa eta Bizkaia jausi ziranean, Getari'n egin zan menperatzaille egintzan, Euskal alduak Frantze'ri esan eutsoen: meperatuko zirala Euskal katolikotasun erlijioa, Fuegoak, Oitura eta ondasunak, lotsagizunaren babesean eukiten ba-ziran, eta Gipuz'tar ta Bizkaia'tar gazteak gudarako izkilluakin beartuak ez zirala izango; eta gudarte (armistizio) orren jabe edo bai-emoile Frantzia'ko erria izan daitela esanaz.

Gure batzar nagusiak joko-ekintza orren bidez gura eban Espainia'ko menpetik urten eta Frantzi'ko errepublikagaz alkar-tu. Baiña, Pinet eta Cavainas Frantzezak Euskal alduak espe-txean sartu ebezan, ez ziralako berez menperatu. Etxabe'tar Jose Fernando izan zan mugi-aldi onen lenengoa.

Badago beste keiñu bat Euskalerrriarentzat, VII'garren Fernando, beren aita IV Karlos'i korioia atzera emoten dautsonean, eta onek I Napoleon'en eskuetan itzi. Espainartean aldundi-orokor bat egin zan, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa'ko batzar guztietatik alduak egon ziran, bertan leenengo kostituzio'egin zaneakoaren alde bozka emonda. Euskalerrriarentzat oso ona izan zana, beste erri ezberdin baten erara artu genituztelako Euskaldunak, eta orrek bakarrik gaur egunerako asko esan gura eban, gaur ortik askatasuna lortzeko, urrats gitxi emon bear genuelako.

Dalla dala, aukera polita zan eta bakarra laterri-lege edo kostituzio ori 1978'rarte bakarra izan dana, baiña zori txarrez guda asi zan.

Madrillen 1808'an Lorailla'ren 2'an Napoleon'en aurka matxinada asi zanean, Murat'ek ierabazle urte eban, baiña ain-beste fusilamentu egin eban lez, Lurralde guztiak Frantzesen aurka alztatu ziran. Orduan Murat'ek, oorezko guda laste eder bat osotu eban, Lapurdi'n, Be'Nafarroan'n eta Zubero'ko gazteak bilduta. Eta or! agertzen gara naazte aundiagoa gure gogoetan sartuz, anaien arteko borrokan.

Beste aldetik Garat senatoreak Napoleon'eri bigaltzen dautso idaz-saio bat, Frantzia'gaz bildu daitezkan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, Euskaldunen artean babes-lur bat osotu

daien "NOUVELLE PHÉNICIE" eritxona. Or! ostera ere Euskaldunentzat orduan paregabeko aukera ederra, batera alkartuta agertzeko.

Baiña 1814'an Wellington'ek Espainia'ko guda Napoleon'i irabazi eutson, eta 1815'an Garagarrilla're 18'an Wuaterloo'ko guda nagusiaz, Euskalerrria'ren amets guztiak, batuta agertzea joan ziran. Andik aurrera Espainolak erasotzen asi ziran Euskaldunak euki gendun Espainol erregiakaz edo Euskalerrria'ren Jaunakaz antolamendua: Frantsezak 1789'an egin eben -en antzera. Ortik aurrera Bizkaia. Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa; Benafarra, Lapurdi eta Zuberoa'ren antzera, nai-ez: Espainaren kultur-mail edo politikako arazo guztietan sartuta egon giñen, karlista'ren gudak, Kuba'koa, Marruekoz eta Argelia-koakaz; eta Frantzi aldeko Euskaldunai bardin, Europa'ko gerla-nagusi biekaz, Marruekoz eta Argeliakoakaz. Gerla bituma orren artetik aurrerantzean gure Nortasunari egindako erasoak, aundiak, zitalak eta eten-bakoak ziran, Euskaltasun izaera iltzeko ata Espainol ta Frantzez gure Euskaldunak biurtzeko.

Dana dala, Euskalerrriaren askatasunerako (ezereztu egin ebezanak), garrantzi aundiko iru gauza ikusten doguz emen:

1.- Napoleon beren gudalozteaz, iraultzarekin etorri zala, gure erlijio, apaiz ta erriari izekatuz, eta auek Inglesa'ren laguntza eskatu ebela.

2.- Euskalerrria'ren itxaropenak Napoleon'ekin aundiak ziralak: baña danak ezereztu egin ziralak Napoleon'ek Waterloo'ko guda-tokian euki eben ondamenagaz.

3.- Napoleon'ek Euskalerrriagaitik ikusi ebana. ez ebala lortu karlistalderdiak ez abertzaletasunak eta gutxiago euki eutsoen Euskal-berezitasunaren eskubideai, auzo guztien aldetik, bear dauan lotsagizunagaz onartu izan daiten.

Bakarrik geratzen jaku, karlistakin azkeneko gertakizunak, gure Euskalerrriko giza maitagarri au, guzti ipar-galduz agertu daiten.

Karlistadak. Lenengoko guda

Napoleon'en denboratik aurrera, Espainia'tar Liberal eta kostituzionalen artean borroka gogorak izan ziran, nor! sasi-jainko andiagoa izan orren bi pentsakera ezberdiñen artetik, eta gure Euskalerrria erdian.

Orrek borrokan aurrera eroateko dirua eta gizonak bear ziran. eta dan dana eurentzat gitxi izan zan tez, Euskalerrriko Jauntasunaren bitartez. Euskalerrria meperatu gura eben, euki eben gudalozte'en bebesean (gaurko tez), eta or ibili ziran olgetan lez, gure mugak gora eta bera, diruaz bete ezinik, gizonaren bearra eta gure Foruak ezerean kontuan euki barik. A-ta guzti ere, gureak ez ziran kikildu, eta noz-bein, alangoko gizon aundiak sortu izan dira gure Euskaldunen anean, Erriaren larritasunean bai beintzat. Zumalakarregi'tar Tomas, olango bat izan zan.

Euskalerrriak, berarekin euki eban aukera bakarra karlista gudaren bitartetik. Foruak maite ebalazako eta orduko guda-nagusien artetik. aundiena bera izan zalako.

Omaiztegi'n 1788'an Lotazil edo Abendu'ko 29'an jaio zan 11 neba-arreben artean bera zazpigarrena zala. Beren aita. Zumalakarregi'tar Frantzizko-Antonio erregen idazlea izan zan eta orregaitik Foruak zer ziran ondo baiño obeto jakin eban. Baiña kokatu gaitez orduko Foruengaitik pentsakeran, ikusteko nolakoak izan ziran, eta Tomas Foru-tarra edo Euskal alderdikoa izan an-en, beren anai Zumalakarregi'tar Mikel-Antonio Liberal edo Espainolaren aldetik beti egon zan.

Gure erriak Karlos M.^a Isidro edo V Karlos'i eskaiñi eutson laguntza gure Foruak babestearen orde. eta orregaitik Liberal'dar Espainol aldetik "Foruakaz Bakeá" eskeiñi arren, Tomas V Karlos errege izan gura ebanaren alde kokatu zan, Forua'ri zin eginazoaz, Euskalerrriarentzat alde onena izan zalako.

Zumalakarregi'tar Tomas'ek, guda-nagusiena izanaz eta Espainia'ko gerla irabazten joan arren, karlista taldean balekitez ikusi-eziñak edo izan-gureak sortu ziralak. neure ustez saldukeria egon zalako ez ankan, beleuna baiño gorago artu eban tiroagaitik, an inguruan ez ziralako egon curen taldekoak baiño.

Dana dala, Tomas Zegama'ra joan zan zauritua osatzeko, baiña gura ez eban lez ankea moztuterik, zaborraldirekin (tétanos) il zan 1835'an Garagarrilla'ren 25'an. Ortik aurrera karlisten taldean naaste eta ezin-aldi aundiak sortu ziran, bestc judaskeri baten bidez gure erriarentzat 1839'an guda galduz.

Emen esan bear da, Espainia'ko borrokan, ez zata bakarrik izan errege-Ieñuaren borroka irabazi bear zana, naziñoaren arteko gizartean nork agindu bear eben baizik: berezitasunak ala menperatzaileak. Eta ori izan zan borrokatzen zana.

Begitu bestela, Espainola'ren Lege-batzarreak 1835'an Loraila'ren 17'an naziñoaren -arteko laguntza eskatzen dauanean, curen artean len erabakita egon zana "Tau naziñoaren elkargoagaz". Ingalterra izan gudari geien bigaldu ebana eta Frantzezak bigarren. Karlisten aldetik bardin, nai-ta auek gogokoak (voluntarios) izan: Aleman, Portugesak, Inglesak, Italiarrak, Frantzesak eta atzerritarren taldea.

Karlistak ondo baiño obeto borrokatu ziran, baiña liberalak laguntza aundiagoa euki ebelako (Franco'ren gudan tez) irabazi eben borroka nagusia.

Borroka oso luzca ta meperatzaileak eta berezitasunak daroazana, len-bez, ez zana argitu, lenengo karlistadan ere ez, ez bigarrenean, Munduko lenengo gudan ere ez. Franko'renean bez, Munduko II'garren gudan ere ez diranak konpondu, eta gaur egunean Europa bai-ta Mundu guztian pil-pil dagozan borroka gogorak lendik datorzan arazo bardiña gaitik; eta dan guztia: "meperatzaileak ez dautsielako itziten berezitasunari curen ardurak betetan" da! Eta gaiñera, ez dakit nungo "goiko sasi-jainkoari ezker".

JAINKO'k arduradun sortu ginduzan Mundu onetan, eta berezitasun ori nai-ta nai-ez nor-beragandik asita erri baten amaitzen da, erri guztiak berezitasunezkoak izan da. Eta or! Munduko arazoak konpontzeko bidea, danak arduradunak izan da, JAINKOA'k beartzen gaitun tez.

Orregaitik Euskaldunak Ipar-galduta agertu giñen Sabino jaio orduko, baiña Sabino berak esaten eban lez Euskalerrriaren ondarena ikusita: "JAINKOA izango da..., gura ez dauana au desagertu daiten?".

Sabino bera izan zan Euskalerrria ikaragarritzko leize-zulotik atara ebana, erritarrai aberkideak izan bear dirala ezanez, or dagoalako JAINKOA'ren bidea Euskalerrria eta Mundu guztien ardurak betetako bidetik. Euskalerrriak lortu dau abertzaletasuna, geienean beintzat, baiña ez gabiltz zuzen. eta ori da zuzentasunean ipini bear dana. "Nai-ta naiezkoa da!!". ■

"EUSKADI ASKATU DAITEN"
ATUTXA'tar PAUL
Zornotzan 2001'an Jorrala'ren 3'an

MATXIN (4n SARIA)

Ene errian, baegoan itxaslapurretan itxaslapurrik ospetsuenetako zan pertsonai entzutetsu bat.

Bere izena Matxin zan baserritarren semea, gaztetatik itxaso zabaletara joana.

1.500.garren urte inguruan, Amerikak aurkitu barri egozala, jende asko abiatzen zan bere etxeoak utzita lur barrira.

Gure pertsonaiak ere, uste bardinagaz Kolon'en bidea egin gura eban, orduan baserrian egoan gosetea-ri aurre egiteko asmoz.

Izena emon eta egun bi barru baegoan gure Matxin espainiar galeoi baten, Bilboko portutik urtetako prest.

Espainiar galeoiak garai artako itxasontzirik andienak ziran. Asikeran itxasontzi txikiak egitea baino merkeagoak ziralako asi ziran egiten galeoiak, baina beste alde batetik, ontzi andiak gatxagoak ziran garraiatzeko eta errazago urperatzen ziran.

Batzutan ekaitzen ondorioz, baina geienetan kortsarioen eta itxaslapurren erruz urperatzen ziran.

Matxin joian galeoia ez zan nolanaikoa.

Zazpitik amabost leguako bordadea eukon, ogeita amasei kanoi astun, ogeita lau kanoi arin, berreun eta lauregoita zortzi gizon eta eun da irurogei tonatik gorako karga erodateko gaitasuna.

Gau baten Española (gaurko Rp. Dominikana) irlara eltzeko egun bat falta zala, itxasontzi susmagarri bat ikusi leitekean ez ain urruti eurengana joiala, ezertariko ikurrinbarik. Ontziko tripulazinoa artega egoan, eta egoteko arrazoirik ez jaken falta, itxaslapurrez gainezka egozalako ur eremu aiek.

Galeoia baino ontzi txikiagoa zan, balandro izeneko ontzi arma. Bederatzitik amabi leguara bitarteko abiadura ar leikean, baina maniobrak egiten arinagoa zanez gero, galeoiak ez eukon ies egiteko aukera andirik. Ontzi mota oni, balandro ezeze goleta ere deitzen eutsoen.

Kasua da ze, goleta parajetu edo urbildu aala gero eta argiago egoan itxaslapurrak zirela baina emoten eban ez eukela borrokarako asmorik.

Kapitaina zala emoten eban batek zera adierazi eban:

– Lasai guztiok, ez dogu txarrik sortu gura, abordaje baten bear izanik ez dago, daukazuezan baliozko gauza guztiak zorro baten sartu, eta geuri emon ezkeru.

Gure galeoian joian jendea ez zan aberatsa baina ala eta guztiz ere, zorro ba betetzeko aina batu zan.

Emon jaken eta goletako kapitainak erreberentzi bat egin ostean, amabi kanoi agertu ziren bapatean curen aetatik sua eta polbora jaurtitzen ebela. Ez ziren itxaslapurrak, kortsarioak baino.

Kortsarioak gobernu batek ordaindutako itxas-merzenarioak ziran, eta curen lana zan, espainiar ontziak lapurtu eta azkenik urperatutea, sarritan galeoiak zer eroien kontutan artu barik, elburu nagusia urperatzea zan, geroago gobernutik (Frantzia, Holanda, Ingalaterratik,...) soldatak jasoz.

Itxaslapurrak edo piratak ostera, lapurreta eukon elburu nagusi. Txakur aren izena, Francis Drake zan (geroago Izaro uartean egozan fraile frantziskotarrei erasotu eutsen berbera).

Drake espainiar Karibera eldu zan espainiarrei ontzi azkar bat ostu ostean, "La ruta de la plata" delakoa aintzat artuta. Asierako urte aietan espainiar galeoiak ez eukaten geroago eukiko eben eskolta, eta errezak ziran lapurtzeko.

Bere bizitzako azken-urteak itxaslapur moduan emon arren, Drake k Ingalaterrako koroarentzat egiten eban bear.

Guk Matxin ez daiogun aaztu. An egoan, **ilotz** egoan gorpu pilo baten erdian, Karibe'ko uretan.

– Au da nire azkena –pentsatu eban gure Matxin'ek– Bein etxetik urten eta beratan eriotzari belarriak ikusi.

Konortea gal-zorian egoala, beste itxasontzi bat uneratu zan, azkenengo arnasetan egoan lagunak ataraz.

Lau ziran zorionekoak, eurotako bat gure Matxin.

Berbetako gai izan zanean, zelako itxasontzian egoan eta nortzuk ziran bertako gizonak itaundu eban Matxin'ek.

la metro bi eukazan gizon bat urreratu jakon.

– Nire izena L'O1 Ionais da eta jatorriz frantziarra naz. Eta zure izena zein da?

– Nire izena Matxin da eta Euskalerritik natorren gazte bat naz, an baino obeto izateko ustez.

– A bai, euskalduna beraz! Ezagutu izan dodaz aibat euskaldun neure bizitan zear. Egia esan nire erria, Euskalerrria pare parean dagoen, Biarno, Zuberoagaz muga egiten dauala, da.

– Aor ba! mondik nora. Esan eban Matxin'ek, ago zabalik, beste ezer esateko kapaz ez zala.

— Gura dozu neure gizonetako bat izan! —Itaundu eutson L'01 Ionais'ek Matxin'eri.

— Bai, zergaitik ez! Galtzeko gitxi daukat eta irabazteko asko.

Egun aretatik aurrera, Matxin Karibeko itxaslapurriek ospetsuenetariko bategaz batu zan.

L'01 Ionais eta Matxin, ondo eroaten ziran alkarregaz, orrexegatik jardun eben alkarregaz zazpi urte luzez.

"La ruta de la Plata" ederto baten ustiatu eben baina curen kolperik onena Marakaibo'n izan zan. 1507.garren urtean, aste bitan bertako ontziak ez eze Marakaibo uria bere okupatu eben.

Matxin'en ilusino andienetariko bat, Francis Drake ingelesa aurkitzea zan, **mendeku** egarriz jokatzeko. Baina ez zan Drake'n arrastorik.

Karibe'ko itxaslapur guztiak portu bakar baten bakarrik egoazan seguru, "Port Royal" zan berau eta Jamaika'ko uartean egoan. Gau baten, tabernarik taberna ebizela, "Por Royalen", Matxin'ek, kasualitatez, Anton de Garai Gorniz'ko semea ezagutu eban.

Anton be, bere antzera, etxetik urten zan bein, Ameriketako egiteko asmotan, eta itxaslapur lez amaitu eban. Alkarrerri animuak emonaz agurtu ziren, barriro ez zirela ikusiko pentseta. Urte beratan, gabonak inguruan, L'01 Ionais'ek zera eskaini eutson Matxin'eri.

— Gazte, nire adinik onena pasa da bein onezkero eta itxasontzi au saltzea ebatzi dot. Nori eta zeuri, gura badozu.

Eta Matxin'ek:

— Eta zergatik niri Kapitain jauna?

Kapitainak orduan:

— Zeu zaralako tripulazino onetan dagoen ganoradun bakarra eta akordio batera eldu ezkerro gizonak be, itxasontziagaz batera, zeureak izango litzakez.

Matxin'ek azkenik:

— la ba! Ados nago.

Olan, L'01 Ionais Frantziara erretiratu zan eta Matxin barriz "txo" izatetik kapitain izatera ailegatu zan.

Denborak aldatuz joiazan eta espalmar Karibea ez zan leen bezain leku trankila. Galeoi espainiarrak eskolta itzelakaz etozan eta itxas lapurrak gero eta bizi-modu latzagoa eukien.

Arrazoi orregatik eta etxetik parajeago edo urbilago egotearren, Mediterraneora joatea erabaki eban, an be bazan aukerarik itxaslapurren ofizioari eusteko.

Mediterraneo itxasoan itxaslapurren erregea ari zan eta ez jakon arean be gustatu Matxin'en barri jakitea. barbarroja zan berau. Turkiarra. Soliman errege zana-aren agindupean egoan eun eta irurogei galera bere menpe ebazala.

Barbarroja'ren itxas-flota guztia ez zan batera ibilten, orregatik urperatu ebazan crea euki ebanean.

Karibea itxaso zabala dan modura, Mediterranea, itxaso zarratua izan da beti. Alaberraren indarrak eta zori txarraren eraginez, gure Matxin'ek Barbarroja'ren armada indartsua aurrez aurre eukon. Euron parera elduta ez jakon indarrik falta turkiarrei aurre egiteko. Orregatik as; zan kainonazoka bere etsaien aurka, baina bere burua inguratuta ikusten eban.

Andik gutxira zulatu eben Matxin'en balandro txikia, bertan egozan gizon guztiak uretara salto eginez.

Barbarroja'ren **mosta** biko ontziak urreratu, eta laster jazo ebezan epaitzeko asmotan.

Barbarroja'k Matxin'en **ausardia** ikusi ondoren, tratu bat eskaini eutson.

— Gazte, gura al zenduke nire **mosta** biko guda ontzi bateko kapitain nagusia izan?

— Ze kondizino jartzen daustazun, kontutan artuta, Erantzun eutson Matxin'ek tinko.

— Kristau zarala antzemoten dot. Musulman biurtuko bazina naiko litzateke.

Orduan Matxin'ek asarre bizian:

— Ezta pentsatu ere! Arinago bizia emon!

Matxin'en crantzunaren aurrean, Barbarroja'k trankil-trankil:

— Bizia ez dakit baina burua bai galduko dozu zure jarrera aldatu ezean.

Matxin'en mututasunaren aurrean, laster egin ziran gure gazte ausartari burua mozteko atonketak.

Dast! Kolpe siku batez amaitu zan gure itxaslapur ospetsuaren bizia.

Baina kondairak aurrera darrai. Matxin akabatu ostean, Barbarroja "Corfura" abiatu zan. Bertan erregeari Matxin'en barri emon, eta zera idatzi eban bere egunerokoan:

"Matxin kapitainak ooretsu emon eban bizia, 1538.garren urteko irailaren ogei eta zazpian, bere sineskera alde batera itzi barik. Ala'k, Jaungoikoa'k, edo artu bearrekoak artu dagiala bere aurpegiaren argitan".

LEGARRETA'tar ASIER

~~ / ◆ ~ I ◆ ~ I
1 ~ ◆ 1 ~ ◆ 1 ~ ◆

URKIOLA ARRIGARRI (II): GAISO-ETXEA TA BENTAK

Erdi-aroan garrantzi aundia euken gaiso-etxeak, ostatu-etxeak, bidelari edo erromesen aterpeak et, "Benta" deritxen etxeak.

Toki askotan aurkitzen doguz olako etxeak eta gaiñera garrantzi aundia emoten jake. Etxeen izena saritar "lazareto" izaten zan, ebanjelioan agertzen dan lazaretxiroa gogoratzeko.

Olako etxeetan aurkitzen eben ostatua ta osasuni Donejakue bidean joiazan erromes celo bidelariak Olako ibiltariak asko izan ziran millagarren urtea baiñe lentxuago asita, erdi-aro guztian eta geroago.

Edonon aurkitzen doguz donejakueren bidelariet ezaugarriak, batez eurak erabilten ebezan kontxak edc ozkolak.

Eldu ete ziran Urkiola'ra bidelari oneik?

Ez dakigu noiztik, Urkiola'ko agiriak geienak erre egin ziralako, baiña zalantza barik eldu zirala.

Itxasoa alde batera itxita, iru sarrera eukezan Bizkaia'ra donejakueta-rrak: Markiñatik Bilbao'ra Ermutik Bilbao'ra eta Otxandio'tik Bilbao'ra. Azkenengo au begiratu daigun.

Gipuzkoa'tik sartzen ziran Otxandio'ra. Emen inguruko baseleizetara zabalduko ziran, toki guztietan lez, eta zergaitik ez Urkiola'ra? Emendik

Zeanuri ra joaten ziran Ipiñaburu'ko Santiago'ren eleizea ikertzeko eta gero Areatza'tik Artea'ra. Artea n Erroke Deunaren ostatua euken jateko eta lo egiteko eta gero Igorre'tik Lemoa'ra joaten ziran emen Ermutik etozanakaz bat egin eta Bilbao'ranta joateko. Eta Bilbao'ko Santiago'ren parrokiak guztiak alkartu eta urteteko bide ezbaridñak artzen ebezan: Santander'era, Orduña'tik Gaztela'ra edo Balmaseda'tik Gaztela'ra.

1567n.urtean diñoskue Urkiola'n antxiñatik egoala gaiso-etxe bat eta urte ori igaro ezker, ardura aundia artzen da gaiso-etxe orren arazoak bideratzen: Basaguren'en beste osatatu bat ipiñi ebenean, nor-geiagoren arazoak sortu ziran eta auzia agertu. Gero ostatu edo gaiso-etxe onen araudia agertzen da: Ibiltariak onartuko dauz, Santutegiaren aurrera biderako irabazi bat emon-ko dan, Urkiola'ra datozen zale guztiak laguntza emon-

go dautse, eleiza barria egiten dabiltzan langilleak bear dabena emongo dautse, bidez doazenai argia, ontzi edo lapikoak, orioa, gatza ta olakoak emongo dautsez...

Or daukagu ba, labur eta zeaztasun larregirik barik, Urkiola'k egin dauan lan eder bat: Gizaldien joanean, gaisoak eta bidelariak laguntza emotea, kanpotik datorrenari ostatua emotea, gose danari jaten emotea. Joka-bide orren ondorengo bat izan bear da gaur ara doazen guztiak ondo artzea eta orretan egiten dabe lan an dagozen arduradunak.

Ostatu-etxe eta gaiso-etxe oneikaz batera antzean doa "benta" deritxen etxeen arzoa.

Arrigarria izaten da edozein tokitan aldatz aundi bat aurkitzen dogunean eta "portu" bat igaro bear danean, antziñatik "bentak" agertzea, eta ez da emengo arzoa beste barik, Gaztela'n be ba-daukaguz olako etxeak. Gogoratu bentak D. Kixote'ren liburuan dauken garrantzia.

Orduan egozan bide txarrak egozala, bildurgarria zan aldatz aundi orreik igaro-bearra. Orregaitik, aldatza asj baiño len norkiak atsedena ta janari-ediariak artu bear ebezan, zaldiak eta idiak bardin eta zelako bear-zanak izan leitekezan aztertu eta alako urten-bideak billatu bear izaten ziran. Orretarako

ziran bentak eta zaldi-kortak aldapa-barrenetan.

Zeanuri n, esaterako, gaur Isidor deunaren eleizea dana, lenago zaldikortea izan zan eta aldapea asi eta laster aurkitzen dogu Benta deritxon lekua eta bertan kapotebenta celo "campo de venta". Eta Barazar-gana igaro ondoren, Ubide'tik laster aurkitzen dogu barriro Benta deritxon tokia.

Urkiola'n, ganean bertan daukaguz Beko Benta eta Goiko Benta celo Benta Zarra. Or egoan jatetxea, zaldikorta, errementaria eta aduana edo fielatoa. Or daukagu gaur be Lazpita-etxea, olako zeregiñak bete ebezan tokia.

Urteen joanean zenbat gauza sortzen eta aldatzen diran eta zenbat jakintza-bide barriak datozenean alboratu eta ezabatzen diran! ■

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek

ATOR LUZE

Guraso zein senitarteko ta inguruko guztjak olako jaiobarria ikusi ebenean arritu egin ziran. Orregaitik bearbada bere ama gaixoari erditzeak ainbeste ordu emon eutsozan.

Ango batzuk, iru edo lau aurtxo izango ebazala uste izan eben, baina, bai zera, ez zan orrela, neurri itzelezko aur bat baino.

Olako aurra ikustean, senitartekoak arbasoen argibideetan arakatzen asj ziran, antzeko gizakiren bila. Alperrik, aurre-aurrean eukena paregabekoa zan.

Ama gizajoa aul-aul geratu zan. Aurdundu baino leen, ez zan emakume potoloa; ostean bai, aurdunaldia- ren irugaren ilabetetik erditze egunera arte, ogeita bost kilo loditu zan, baina ori ere bere auzoan ez zan arritze- ko gauza aundirik.

Jaiobarriarentzako seaskatxo txikiegia zala kontu- ratu ziranean, aita, tximista baizen a rin, beste seaska aundiago bat eskatzeko arotzarengana joan zan.

Ordu batzuk geroago seaska barriagaz oso pozik etorri zan. Sendiko emakumeak, bitartean, jantzi barri aundiagoak josi ebezan eta gorulariek gordeta eukan ari eta eun guztjak agortu ebezan, baina gure aurraren ume-otzarea barriro beterik egoan.

Naiz eta jaiobarria izan, ain aundi izatearren, amak ez eukan esne naikorik semetxoaren urdalla betetzeko, orregaitik amama "kerizpe" astemearengana aren esne gozoaren bila kortara abiatu zan.

Atseginez artzen eban gure jaiobarriak "keripe"-ren esnea, baina andik bi astebetara, ondoko auzokoan astemearen esnea ere bear izaten eban. Ainbeste jatearen eraginaz bearbada, izugarrizko neurrian azten zan.

Andik gitxira alako gizakumea janzea amarentzat nekegarria izanik, burutik beerako ator luze-luze batzuk egitea otu jakon. A bai poza! Orduan jagi eta lo egiteko orduak askoz erosoak ziran.

Urrengo jlean umea bateatu eben eta aititeren ome- nez Antton izendatu eben. Amarentzat noizean bein semeari kamisoi antzeko jantziak egitea e rrezagoa zan. Oetik atara, elikatu, garbitu eta oeratzea guztiz nekaga- rria izaten zalako.

Erritxo artan o; zan legez, gizakiak norberaren unki- garrizko ezizentzat ezagun ziran eta gure Antton laster "Ator-luze" izendatu —edo ezizendatu— eben. Laster ere ibiltzen ikasi eban eta amak, aitaren frakak arentzat kon- pondu arren, danentzat eta betirako "Ator-luze" izango zan.

Se; urte bete ebazanean, amase; urteko mutikotzat artzen eben, orregaitik oso mutil on, lasai, gozo eta atsegina izan aren, leenengoz ezagutzean, ain aundi ikusiz, mutiko guztiek bildurrez beregandik aldeegiten eben. Onek Antton asko murrizten eban, baina bere

ontasuna ezagutu orduko, adiskidetasuna sortzen zan. Mutiko bati pelotea zuaitz baten gainean jausi? An egoan "Ator-luze" arrapatzeko. Biren arteko borroka bazan, "Ator-luze" erdi-erdian bakea azaltzeko, edo- zein atso edo agure laguntzarik bearrik, araxe joian atseginez, laguntzeko prest. Gauza baten bakarrik ez zan ona gure mutila: ikasteko orduan.

Aitak, ain indartsu ikustean, arrijasotzaile izatea proposatu eutson, baina gure "Ator-luze"-ri ori ez jakon atsegin izaten eta onela esan eutson a;rtari:

— Asko maite zaitut, aita, eta zuk dinozuna izatea gustatuko litzakit, baina jende pilo baten aurrean nere gorputz tanta; au erakusteak lotsa-gorria emoten deust. Badakizu, aita, jendea oso minzorrotza dala, eta ni lotsatiegia.

— Lasaitu zaituz, seme —erantzun eutson aitak— zu oso seme ona zara, eta gura ez dozuna egitera ez zaitut beartuko, baina badakizu ere zure biz;bearrak gureak baino askoz garestiagoak dirala, eta gure etxean diru naikorik ez dala sartzen.

— Bai, badakit ori, aita, eta laguntzeko prest nago, badaukat lantxo bat mandatugile moduan. Atzo *Marinel* arraindegian etxerik etxe eta baserriz baserri arrai- nak banatzeko iragarkia ikusi neban eta gaur, ikastola- rako bidean, zabalik egoala ikustean, ara joan eta aur- keztu naz. Nirea da lanpostua, aita, eta apala izan arren, etxean laguntza izango da, eta niretzat aproposa eta atsegina, biar asiko naz.

Anttonen aita apur bat larritu zan, alako seme-itxu- ra ikusgarri eta arrotz egiten jakon, baina bere asmoa semearen gustokoa ez zan, eta kitto!

Ara joan zan urrengo egunean poz-pozik *Marinel* arraindegira bere ogibide bar;ian asteko. Denda erriko kaia aurrean egoan. Erritik erosketak banatzea ez zan ezer nekagarria, baserririk baserri oinez joatea, ostera, nekagarriagoa zan, baina alan eta guztiz bere "Ator- luze" oso pozik joian.

— Orretarako —esaten eban— Jaungoikoak onelako gorputza eta indarra emon deustaz.

Atseginez egiten eban bere lana, jendeak be gozota- sunez onartzen eban, baina aundia baizen ona izatea- gaitik, laster arazoak sortuko jakozan.

Egun areitatik, erritxo artara j;ito talde bat eldu zan, danak senide ziran eta euren artean ume piloa egoan. Euren **oialpeak** alderrietan eraiki ebezan eta noizean bein diru truk egurrez eginako kutxa, adar aundiko auntza eta pandero edo atabaltxo bat artu eta erritik zear abiatzen diran jotzen eta abesten, itzul-inguruka.

"Ator-luze" erritik mandatuak banatzen egoanean, inoiz entzundako zarata entzun eban eta arantz abiatu zan, jazotzen egoana jakin guraz. Auntzaren itzulkiak

IPUIN-SARIKETA

ikustean arrituta geratu zan. A zan ikusgarria! Animalia kutxa gainean igota eta ijito batek agindutakoak egiten. Ikusgarria benetan!

Ijitoaren arridura bere ez zan makala. Aren umeak, curen ondoan alako ume erraldoia ikustean, negarrez asj ziran eta gure mutila, goibel, andik joan zan.

Gau artan, naiz eta ilun egon, lotara joan zanean ikusitakoa ezin eban burutik kendu. Abere-ezilari izatea guztiz atsegina egiten jakon. Zein abere-ezilaria izango litzake berari komeni jakona? Eta zelan esan gurasoei ori izan gura ebalat?

Beste aldetik, oialpeko ijitoei gure mutila nor eta zelako zan ondo jakin ebenean, curen egoera larriaz amaitzeko urtenbide bat ikusi eban.

— Alako mutil erraldoiagaz tripa-zorriak, amaitu egingo dira betirako —pentsatu eban— eta curen egitasmoa asmatzen asj ziran, eurek az joateko ongariak, mutilarj buruan sartzeko.

Biaramonean, eta arrazoi ezbardinakaitik, bata eta besteak ikus-galeak egozan. Erritxo erdian topatu ziran "Ator-luze" lotsaz eta ijitoei maltzurrez alkar irribarretsu ziran. Umeak bildur barik eskutik lotuta, curen oilpera eroan eban eta an, abere-eziketa erakutsiko eutsoela esanez eta beste iruzur batzuen bidez, loarazoteko belar ura emon eta arin beragaz erritik alde egin eban.

Mutila itzartu zenerako bere erritik urrun egozan eta konturatu zanean, burugabea zala pentsatzean damutu rik negar zotinka asj zan. Aul aul egoan eta burua erdi lelotuta, zutuntzen aalegindu zan eta ezin, dana alperrik. Gizon sendo itxurea izan arren, mutikoa baino ez zan eta orregaitik negarrari ezin eutson itzi.

Ijitoek, bitartean, iragarki aundi bat egin eban inguru artako jendeari "Ume Erraldoia" ikustera deitzeko. Ume txikia giza-jantzirik, kaiola baten sartuta eta erriz erri erakusten eban izugarritzko ume negarti a, noizean bein aul jarraitzeko oiko pozoina emonaz.

Kai-aurreko erritxoan guraso, senide eta errikide guztiak "Ator-luze"-ren desagertzean oso kezkatu rik ebiltzan. Ijitoak erritik joan ziranetik ez eban inork "Atorluze" ikusi, ba ete eukan ark zerikusirik? Gurasoak biotza autsita ebiltzan, aurkitu guraz.

Euren sajoak amaitu eta gero, ijitoak kaiola antzeko gurdi batean kateaz lotu rik itziten eban Antton, baina taldeko ijitotxoek ain indarge ikustean beragana joaten ziran, jateko zeozer emoten eta solasalditxoaren bat egiteko. Astiro-astiro curen artean adiskidetasuna sortzen joian eta egun batean, auldurik egoan legez, umeak nagusiari kateak kentzeko eskatu eutsen. Onek lo-belarren eraginpean egoala ikustean askatu eban eta gure mutilak, goibel egon arren, negarrari itzi eutson.

Urrengo egunean, udako arratsalde sargoria izan zanez, gurdiakaz ibaiertzera igarotzean bustialdi bat egiteko goga etorri jaken. Pentsatu eta egin.

— Zein ondo, zein ondo! —oiukatu eban pozaren pozez ijitotxoek, jantziak kendu artean. Aieta riko bat,

Antton izerditsu egoan gurdiari begira, arduradunari eskatu eutson:

— Mesedez, jauna, emongo deustazu baimenik Antton gugaz busti aal izateko? Sargori da eta freskotzen ez bada, gaixotuko egingo da.

Baietza artu ostean, biok batera uretara abiatu ziran, oju larriak entzun ebezan, ijitotxoaren bat putzu sakon baten murgildurik estura gorrian egoan eta beste ijitotxoek igeri egiten jakin ez. Ernegatuta, oi egiten baino ez ekien. Nekez eta zailtasunez, gure mutila uretan sartu, umetxoa arrapatu eta legorretara eroan eban. Salbatuta egoan, baina bere salbatzailea ain makal egoanez, konortea galdurik lurrera jausi zan.

Ordu luzcak emon ebezan biok suspertzeko. Alan eta guztiz bere, "Ator-luze" ainbeste nekealdiren eraginaz gaixotasun ezezagunean jausi zan.

Ijito taldearen arduraduna, "patriarka" eritxoena, kezkatzen asj zan. Uretan itotzeko arriskuan egon zana bere bilobea zan, eta orain Anttonegaz zorretan egoan. Zorrak eurentzat betiko ziran, sakratuak, eta orregaitik aurrerantzean "Ator-luze" zaintzeko eta osatzeko aal eban guztj a egingo eban.

Konortera barriro etorri jakenean, patriarkak parka-mena eskatuz, laster gurasoengana eroango ebela zin egin eutson, eta etxerantzako bidaian zear pizti-ezilari izaten erakutsiko eutsola eskeini eutson, baina berak ezetz esan eban.

Eskerrik asko, ori gura izateak neke ta arazo ugari ekarri deustaz. "Bizkor" nire txakurraren menpekotasunaz naiko daukat.

Ori esanda, eta barriro gurasoen baserrira joango zala jakitean, jausi aldi larritik urten eban.

Erritxora eldu ziranerako, guztiz indarberrituri egoan. Ijitoek erritarren aurrean aitortu eta damutu ziran. Alkateak jai egun **dubako** bat egitera zigortu ebazan eta eurak poz-pezik antolatu eban, gordeta eukezan jantzirik ederrenakaz, "Ator-luze" ren omenez ekiezan ekintza guztjak antzetzeko saioa.

— Aita —esan eban Anttonek— nire lanean jardun bitartean, arrijasotzaile egingo naz. Duintasunez agertuz gero, lotsatzeko zergaitik ez dagoala ondo ikasi dot eta.

Alkar besarkaturik, amagaz erriko jairik ospetsu-ñera abiatu ziran, eta andik urte batzuetara Antton, "Ator-luze", arrijasotzaile ospetsua izango zan. ■

Palmi Merino

1~11~11~1

LEGE ZARRA (FORUA) (II): BEREIZTASUNAK

Foru ekanduen eta oituren ondorena da eta argi agertzen dausku zeintzuk ziran gure asaben balioak eta jokabideak.

Ekandua ez da besterik gauza bat sarritan egiñaz oitura lenengo biurtu eta azkenean oitura zar biurtu dana baiño. Ortik sortzen dira ba, lege oneik eta ez goitik bera agintariak ezarrirako arauetatik, naizta legedi au Jaunak onartua eta zin egiña izan.

Aspaldiko erakundeen oitura izan da, buru-argizaleen asmapena, legeak laterriak egin bear dauzala, goian alkartu diran legegille batzuk dirala legeen iturria, baiña orrelan eginda sarritan etorten da ondamedia, goiko gizon orreik, zurrak eta jakitunak izan arren, eurak egindako legeak erriari ezarri eta erriak onartzen ez dauzanean eta orrelan legedi asko ez dira beste ezertarako izan liburutegietako liburu-toki batzuk beteteko baiño.

Baiña Lege Zarra, Forua, erriaren barrutik sortzen da, erriak bear dauanari erantzuten dautso eta erriak baliokotzak artzen dauana artzen dau.

Bizkai'ko Forua ba, ez da besterik ekanduen eta oituren bilduma baiño. Ori esaten da lege bakoitxaren asieran: "Lege Zar, ekandu eta oitura ebela eta orain lege lez agertzen dala...".

Oitura iturri izan arren, iñoz lege-egilleak be sartzten dau bere eskua. Sarritan legea zar biurtuta ta bete barik geratzen da, edo oitura zar batzuk sasoi barriaren bidera ekarri bear izaten dira eta orduan legegilleak bere itza dauka, kontuz eta arduraz esan bear dan itza. Legeak egiteko almena ez da arriñegi artu bear. Esaterako, Legedi zurrak 112n. atalean, erositako ondasunak mobikor lez artzen dirala diño eta ori aldatu egin bear zala uste izanik, legegilleak erabagia artu eben: Ero-siak ziran ondasunak, gurasoakandik artutakoak lez, sendiarenak lez, kontau bear dirala.

Batzuk ardura aundiz ¹buru dabe gure lege oneik ete dauken zerikusirik jermanoen legeakaz edo eskandinaboenakaz. Oneik uste eben munduko legedi guztiak bi edo iru iturritatik etorriak dirala, baiña ez leuke aitzu bear legediak egiteko epe luze bat bear izaten dala eta legegintza orretara sartzten dala inguruko jakintza.

Baiña olako iturriak billatzea bide oke rra izan arren, beste okerkeri bat litzake gure legedi onek beste iñongo legeakaz zer-ikusirik ez daukoala esatea, ugarteantzera eta beste iñogaz artu-emonik izan barik bizi izan garala euskaldunok uste izatea. Zalantza barik, gure legediak ba-dauko zer-ikusia Aragoi eta Naparroa'ko legediakaz. Joakin Kosta'k esana artu bear da kontuan: Bear ba'da, lege-alkarte bat zirala auñamendi-inguruko errialde guztiak, Bizkai'tik Lerida'ra bitartean Baskoien oiñarri zarra kontuan eukela.

Legedi guzti oneik oitureari emoten dautsoe balio aundia, Naparroa'n esaterako legeak berak baiño gei-ago balio izaten eban batzutan. Eta beste jokabide bat-guztiak batera daukena, notiña lenengo maillan ipintea da.

Foruan agertzen diran eskubideetan gauza bat dago nabarmena, eskubide bat agiri da beste guztien gaiñetik, erdi-aroko legedietan eta kristiñauen jokabidean argi agiri dan gauzea: aidean dagozen gauzak esaten eta agintzen ibilli barik, bide zeatzak eta ziurrak agertzen dabezela, Erregearen aginpideak zio argi barik ez dagian euki erritarrik epe luzean espetxeratuta. Olako zerbait agertzen da, baita, Angland-aldian "habeas corpus" esaten jakon aretan. Ori argi ta garbi, sarri eta ziur agertzen da gure Foruak daukazan lege za rretan. ■

OLAZAR'tar Martin'ek

**ZUGATZ BAT SARTU DAUA-
NARENA EZ DA ALPERREKO
BIZITZEA**

DANTE

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

GURE LURRA TA GU LURTARROK (I): IZARKETA

Euskaldunok maite dogu gure lurra eta Bizkai'tarrok Bizkai'koa.

Baiña lur onek bere edestia dauka eta edesti au jakin be badakigu. Laster esango dogu nondik nora eta zelan. Ondo izango da dakiguna azaltzea. Lur-iztia edo jeologia esango dautsagu jakinbide oneri.

Astero esan daiguzan orokorki Bizkai'ko lurrari dago-kion edestia ulertzeko kontuan euku bear diran oar batzuk.

Lur-iztian, jeolojian, aldiak aitatzen doguzanean ez doguz aitatzen milla urtean jazo diran gauzak edo aldakuntzak. Neurri lez milloj-urtea artu bear dogu. Guk ezin dogu buruan sartu zer dan milloj bat urte, gure bizitzea eun urteren barruan doalako. Eun urte ez dira ezer be lu-iztian: mendiak eta ibarrak eun urtean ez dira itxura baten ezer be aldatzen. Bi milla urte dira Kristo jaio zala eta aldi orretan be ez dago aldakuntza aundirik: ibaiak len lez doaz, itxas-ertzak lengoak dira. Baiña milloj bat urte, bada zerbait: Aldi onetan bai izan dira aldakuntzak: milla batzuk urtetan dana izan da izotza, zingira barriak sortu dira eta itxas-ertza be pizka bat edo geigo atzeratu edo aurreratu egin da. Guk gure bizitzan urteak artzen doguz kontuan, lur-iztileri edo jeologoak urteak milloika begiraten dauz.

Baiña nondik jakin ain antxiñako gauzak zelan jazo ziran?

Bide bat estratoak edo lur-azalak aztertzea da. Oneik dira guk ikasi bear dogun liburuaren orriak. Estratoak urrengorik urregora gaiñean. Lur-azalak aldatuta agertzen diranean, aldaketa au azala baiña baiña geroagokoa da. Lur-azalen barruan pizti arri biurten ondakiñak dagozanean, azal ori piztien aldiak sortua da. Ara: Bizidun bateri, landara naiz abere naiz gizakia izan, igarten dautsagu adiña. Antzera lúr-iztilariak igarten dabe lur-azalen sasoiak.

Esan doguzan jakiteko bide orreik ez dauskue esaten lur-azalak zenbat urte daukazan, zein dan zarragoa edo gazteagoa baiña. Zelan jakin zenbat milloj urte dituan? Ba-dagoz orretarako be bide batzuk: Meatzak, astiro astiro euren gai batzuk galtzen dabez, zar egiten dira bizidunak lez eta zenbat galdu daben jakin ezkerro, atera geinke zenbat milloj urte daukezan. Eta beste era batera be bai: Karbono 14'arena deritxona, lur-azalak ain zarrak ez diranean.

Bide orreik artuta ikusi al daikenetik, lurrak 3.500 milloj urte daukaz. Aldi zarrak, arkaikoak, 600 milloj urte daukaz.

Aldi orreik asj baiña lenago, lurrik ez egoan baiña zer zan orain lurra dan au? Aldi oso luzeak dira orreik eta illuntasunean dagoz. Kosmogoni-aldiak dira. Orduan gaur lurra dan au esan besterik sua, zerbait iziotua, baiña.

Lur-izti edo jeoloji-urteak zer diran ulertu daigun ara adibide bat Egin daigun dana dala gure urte bat: Aldi zarra izango litzake zortzi illebeta, len-aldia, era primaria, ille bi, erdi-aldia edo mesozoika illebeta, irugarren aldia, gaurko mendiak sortu ziranetik, amabost egun eta Gabon-inguruan, 50.000.000 urte dirala, agertuko da Bizkaia lur onetan. Eta gizonak agertu giñanetik onakoa urte orren barruan ezarteko, minutu bi baiña ez litzakez izango eta gizon baten bizitzea neurtzeko, kanpai batek baten jotzen egiten dauan denporea.

Or daukaguz pizti arri biurtuak edo fosilak. Aitzetan agertzen dira. Eta sarritan euren oiñatzak edo arrautzak edo itzi daben satza baiña ez. Oneik argitasun aundia emoten dabe aldiak ziurtatzeko. Ur gozoetan ibiltzen diranak ba'dira, an ur gozozko zingira izan zan, ur gazitakoak ba'dira an itxasoa egoan.

Sarritan arrain arri biurtuak mendi aundien gaiñean aurkitzen doguz. Zelan eldu dira ara? Ba, mendi orreik antxiña itxaspean egon ziran eta gero goratu dira edo itxasoa beeratu da. Goratu, esaterako, lurrak oindiño bigun egoanean alboetatik sakatu jakelako. Urak beeratu, arlo aundiagoak artu dauzalako. Lurrak artzen dauzan izur orrei jeosinklinalak esaten jake. Izur-arte orreitan aizeak dakazan areak eta sastarrak pillatzen dira eta orrelan doa osotzen lur emoillea. Itxaspean be egiten dira olako pillatzeak edo sendimentaziñoak eta gero itxasoa andik doanean lur ona agertzen da.


Jakingarri oneik kontuan dirala, lur-iztzko lur-irudiak edo mapak egiten dira, esaterako Bizkai'ko lur-irudia toki bakoitxean dagoan lurra noiz sortua dan esaten dala.

Urrengo idaz-lanetan agertuko dogu, amar bat izango dira, noz eta zelan sortu dan gaiñean gaukazan Bizkai'ko lurra, beronen mendiak, errekek, zingirak, itxasoak eta abar.


OLAZAR'tar MARTIN'ek

Oarra: Amar idaz-lan oneitan agertzen diran jakingarriak Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak argitaratutako colección de temas Vizcainos'eko lan bitatik artu dodaz, 13^a Jazinto Gomez Tejedor gizon zintzoarena eta 14^a Apellaniz eta Castroviejo adiskide aundiarena, baiña jakingarriak nasa; artzen dodaz, gitxitan itzuli, eta tarteka neure eritxiak eta oeste leku batzutatik artutako jakingarriak sartzen dodaz. Eskerrik asko.

EUSKALDUN BARRIENTZAT




Marrazki onek, danak daukie parea, bi ezik
Azalpena: 1 c 2 b 3 d 4a



Alkartu bear dozuz pertsona onek!


Azalpena
1-c
2-b
3-d
4-a



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deusegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa